

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sustapen Departamentuak N-121-A errepideko bide-zorua, seinaleak eta balizamendua hobetuko ditu, Bera parean

*Zarraluqui kontseilariak 64 eta 66 KPen artean egingo diren jardueren berri eman die inguruko alkateei; gune horiek, azken ezbeharrak gorabehera, ez dira istripu askoko tartearak.*

Jueves, 06 de febrero de 2014

Luis Zarraluqui Sustapen kontseilaria Baztan eta Bortzirietako alkateekin elkartu da gaur goizean N-121-A errepidearen egoera aztertzeko. Bileran, Departamentuak bide-zorua, seinaleak eta balizamendua hobetzeko egin nahi dituen jarduerak azaldu ditu.



Zarraluqui kontseilaria Baztan, Malerreka eta Bortzirietako alkateekin izan duen bileran.

Departamentutik, kontseilariarekin batera, Ignacio Nagore Herri Lanetako zuzendari nagusia eta Zaintzeko Zerbitzuko langile teknikariak izan dira. Udalen aldetik, Marisol Taberna Berako alkatea, Severiano Choperena Lesakako alkateordea, Amets Inda Sunbillako alkatea, Alberto San Miguel Oizko alkatea, Garbiñe Elizegi Baztango alkatea, Gloria Agerri Doneztebeko alkateordea eta Florentino Goñi Baztango Udaleko Herri lanetako zinegotzia izan dira bileran.

Kontseilariak N-121-A errepideko tartean (64-66 PK) bide-segurtasuna hobetzeko Departamentuak egindako proposamenen berri eman die, izan ere, iragan urtarrilaren 23an, bi pertsona hil ziren trafiko-istripu batean. Proposamenaren barruan sartzen da seinale bertikalak zein horizontalak hobetzea. Hortaz, 13 seinale berri jarriko dira, arriskuaz oharatarazi eta abisatzeko, eta informaziorako panel osagarriak. Gainera, norabidea adierazi edo erreikiak hautatzeko geziak eta gelditzeko marrak pintatuko dira.

Bestalde, eusteko eta balizamendurako elementuak indartuko dira, uhin biko segurtasun-hesiak tarte luzeagoan, norabidea adierazten duten hesiak eta puntadun mugarri bat jarrita. Horiez gain, aglomeratu asfaltikoaren geruza bat zabalduko da tarte batzuetan itsaspena hobetzeko, ibilgailu geldoentzako erreia laburtu egingo da, eta galtzadaren ertzean zabalera ere itxi egingo da.

Bileran, tarte horretako bide-segurtasunari buruzko azterlana

eguneratu dela jakinarazi zaie udaletako ordezkariari (urtero egiten da ofizioz Nafarroako Errepide Sare osoan). Departamentuak zein Geocisa enpresa aholkulari adituak eskuratutako emaitzen bidez baieztatu daitezke ez dela istripu askoko tartea. Halakotzat jotzen dira antzeko ezaugarriak dituzten bideetako istripuen batez bestekoa baino askoz istripu gehiago izaten dituzten tartearak. Neurtzean, trafikoaren ugaritasuna eta arriskuaren indizea hartzen dira kontuan.

Gainera, galtzadaren itsaspena neurtzea ahalbidetzen duen Zehar marruskaduraren koefizientea aztertu da. Tarte horretan eskuratutako datu guztiek Sustapen Ministerioak gomendatutako mugak gainditzen dituzte (guztira 204 neurketa-puntu).

Bi azterketak (istripuen ingurukoa eta Zehar marruskaduraren koefizientea neurtzekoa) N-121-A osoan zehar egin dira, Iruñetik Endarlatzaraino, 6.900 neurketa-puntu baino gehiagorekin. Ez da istripu askoko tarterik erregistratu.

### **Istripuak eta arrazoiak**

2009ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra, 45 istripu izan dira N-121-A errepideko tarte horretan. Horietatik hamarretan zaurituak izan ziren, baina ez zuten heriotzarik eragin.

Hauek izan ziren istripuen faktoreak: kasuen % 44tan abiadura ezegokia, % 27tan arreta nahikorik gabe gidatzea eta % 24tan eguraldi txarra. Neurri txikiagoan, honako hauek izan ziren faktoreak: kontrako erreian arauen aurka sartzea (% 7), segurtasun-distantzia ez gordetzea (% 7), alkoholaren edo drogen kontsumoa (% 2) eta matxura (% 2).

### **N-121-A errepidean egindako jarduerak**

2000 eta 2013 urteen artean 49 jarduera burutu dira N-121-A errepidean, 137.695.891,61 euro inbertituta. Horietatik 14.951.315,24 euro errepideak zaintzeko, bide-segurtasuna mantentzeko eta tuneletako esku-hartzei dagozkie.